



## **PROKOKOLO OROKORRA**

### **2021/22 IKASTURTEAN IKASTETXEETAN COVID-19 KASUAK AGERTZEN DIRENEAN JARDUTEKO PROZEDURA**

- 1. SARRERA**
- 2. HELBURUA**
- 3. OINARRIZKO PREBENTZIO-NEURRIAK**
  - A) Harremanak mugatzea.**
  - B) Prebentzio pertsonaleko neurriak.**
  - C) Garbiketa eta aireztapena.**
  - D) Kasuen kudeaketa.**
  - E) Ikastetxea antolatzeke beste neurri batzuk.**

#### **1.- Sarrera**

2020-2021 ikasturtea, COVID-19k eragindako alarma-egoerak eta osasun-larrialdiak ez ezik, etengabe aldatzen izan den egoera epidemiologikoak ere baldintzatu du, amaigabeak ziruditen igoerak eta inoiz nahikoa ez ziren jaitsierak tarteko, besteak beste.

Testuinguru horretan, ikastetxeen kudeaketa erronka handia izan da, bai antolamenduaren aldetik, bai irakaskuntzaren aldetik. Zuzendaritza-taldeek, irakasleek eta irakaskuntzaz kanpoko langileek funtsezko rola izan dute, une oro, bai birusaren transmisio komunitario handiko egoeretan, bai transmisio baxuagoko egoeretan, ikasleak eskolara joan ahal izateko eta hezkuntza-eskubidea % 100ean aurrez aurre bete ahal izateko. Irakasle-taldeek era guztietako estrategiak eta baliabideak erabili dituzte hezkuntzaren kalitatea ahalik eta handiena izan dadin, eta familiak eta ikasleak berehala egokitu dira kontingentzia-planetan proposatutako prebentzio-neurrietara.

Txertoak iristeak eta funtsezko kolektiboentzako txertaketa-kanpaina hasteak, zalantzarik gabe, inflexio-puntua ekarri du ikasturtearen martxan. Ondorioz, Aste Santuko oporren osteko "eskolara itzultzea" desberdina izan da Gabonen osteko itzulerarekin alderatuta; izan ere, Haur



Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe gehienetan, horietan lan egiten duten profesional gehienak txertoaren lehen dosi batekin itzuli dira. Ikastetxe horietan guztietan, beraz, ikasturtearen azken txanpa beste modu batera bizi ahal izan da. Prebentzio-neurriak batera lasaitu gabe, baina profesionalen artean askoz ere zalantza edo antsietate gutxiagorekin.

Funtsezko kolektiboen ondoren, adinaren araberrako txertaketa-kanpainaren txanda izan da, aurreko fasean baino erritmo biziagoan gainera, eta, horren ondorioz, ikasturte-hasierarako populazio heldu immunizatuaren ehuneko oso altua aurreikusten da.

Kudeaketa horretan guztian, Osasun eta Hezkuntza Sailen arteko lankidetzeta eta koordinazioa etengabea eta eraginkorra izan da. Hezkuntza sisteman pandemiaren Jarraipena egiteko Batzorde Teknikoa, Osasun Publikoko, Osakidetzako eta Hezkuntzako ordezkariak osatua, astero elkartu da 2020-2021 ikasturtea hasi zenetik, kasuak, kasuistika eta aurreikusitako neurrien egokitasuna aztertzeko, bai eta jarduera-protokoloetan aldaketak eta hobekuntzak proposatzeko ere.

Bestalde, Hezkuntza Sailak asteroko bilera horietara eraman dituen proposamenak aurrez kontrastatu dira sare publikoko zuzendaritza-taldeetako ordezkariekin. Informazioa eman, jaso eta kontrastatzeko aldizkako bilerak izan dira, bai eta hartutako neurriak eta proposamen berriak baloratzeko ere.

Ikastetxeak, irakasleak, familiak eta Hezkuntza Saila elkarlanean eta koordinatuta aritu dira prebentzio neurriak zein aztarnei jarraitzeko neurri eraginkorrak diseinatu eta ezartzen. Horren guztiaren emaitza izan da 2020-2021 ikasturtea %100ean aurrez aurre egin dutela ikasleen ia %98k. Eta hori guztia egoera epidemiologikoa alde batera utzita, hau da, zentroek birusak gizartean oro har duen intzidentzia-egoera islatu badute ere, ez dira inoiz kutsatze-bektore izan, guztiz kontrakoa baizik. Hain da horrela, ezen inoiz ez baita planteatu 2020-2021 ikasturterako jarduera-protokolo orokorrean aurreikusitako beste egoera batera igarotzea; ikasturtean zehar gertatutako intzidentzia-tasa guztietan, ikastetxeek lehen agertokia mantendu dute: hezkuntza presentziala, higie-neurriekin, kontaktuen mugaketarekin, aireztapenarekin eta maskararen erabilerarekin.

Halaber, 2021-2022 ikasturte honetarako ere, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza eta hezkuntza-maila guztietan presentzialtasun egoera bat planteatzen dugu, higie-neurriekin, kontaktuak mugatzearekin, aireztapen egokiarekin eta maskara erabiltzearekin. Hala ere, kontuan harturik komunitate zientifikoak lortutako ebidentzia eta ezagutza, zentroek kasuak kudeatzeko eta bilatzeko hartutako esperientzia eta txertaketa-kanpainak izan duen bilakaera, protokolo honetan 2020-2021 ikasturterako aurreikusi zena baino testuinguru epidemiologiko hoberako prebentzio-neurriak planteatzen dira.

Ondoren aurkezten diren 2021-2022 ikasturterako neurriak diseinatzeko, honako hauek hartu dira kontuan: egungo egoera epidemiologikoa (ikasturte-amaiera); COVID-19ren aurkako txertaketa-estrategia; eskura dagoen ebidentzia zientifikoaren berrikuspena eta bidean ikasitako ikasgaiak; ikastetxe irekita izateko beharraren inguruko adostasuna, horrek haurren eta nerabeen osasunean, ongizate emozionalean, ekitatean eta hezkuntza-mailan duen eraginagatik; eta, batez ere, ziurra delako hori lor daitekeela, ikasturte honetan zehar arrakastaz egin baita.



## 2.- Helburua

Ikastetxeek hartu beharreko neurrien helburua **hezkuntza-jarduera presentzialaren** garapena bermatzea da, betiere COVID-19 hezkuntza-komunitatean ez zabaltzeko. Beraz, helburua da gure ikasleek kalitatezko hezkuntza jasotzeko duten eskubidea bermatzea segurtasun- eta osasun-baldintzetan, bai eta ikastetxean lan egiten duten pertsonentzat ere. Ildo horretan, kontuan hartu beharko dira, Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak garatzen dituen COVID-19ren aurkako laneko arriskuen prebentzio-neurriak.

Protokolo Orokor honen helburua antolaketaren ikuspegitik jarduteko jarraibideak ezartzea da, ikasturte hasieran nahiz ikasturtean zehar gertatzen den edozein egoerari behar bezala erantzuteko, betiere pertsonen segurtasun- eta osasun-baldintzak bermatuz.

Horretarako, ikastetxe bakoitzak, Protokolo Orokor honetan ezarritako jarraibideei eta osasun-agintaritzak unean-unean eman ditzakeen aholkuei jarraiki, hauetara egokitu beharko du bere jarduera. Horretarako, Ikastetxearen Urteko Planean atal bat ezarriko du Kontingentzia Planarekin. Azken honetan zehaztuko eta jasoko dira, Protokolo Orokor honetatik eratortzen diren hainbat esparru, prebentzio- eta higiene-neurriak, eta transmisio-egoeran balizko aldaketarik gertatzen denerako jarduerak, Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak emandako jarraibideen arabera ([COVID-19ren aurkako laneko arriskuen prebentzio-neurriak](#)).

Hala ere, Protokolo hau dinamikoa da, eta osasun-agintariek ezarritako jarraibideen arabera eguneratuko da uneoro. Pandemiaren aurreko arrakasta, 2020-2021 ikasturtean bezala, inplikaturako eragile guztien konpromisoaren eta erantzunkidetasunaren ondorio izango da: zuzendaritza-taldea, irakasleak, administrazio eta zerbitzuetako langileak, ikasleak, familiak eta ikastetxearekin modu batean edo bestean harremana duten pertsona guztiak.

## 3.- Oinarrizko prebentzio-neurriak

Metatutako ebidentzia zientifikoak erakusten digu SARS-CoV-2 pertsonatik pertsonara transmititu daitekeela hainbat bideetatik. Horietan nagusia da, pertsona gaixo batek igorritako arnasketa-aerosolak edo tamaina handiagoko partikulak beste pertsona zaurgarri batengana iristea, ukituz edo goiko nahiz beheko arnasbideen bidez. Sortutako aerosolen kontzentrazioa eta tamaina garatutako jardueraren arabera da: minimoa da arnasa lasai hartzean, eta gero eta handiagoa berriz, hurrenkera honetan, ahapeka hitz-egitean, ozen aritzean, garrasi egitean, abestean, ezul egitean eta jarduera fisiko biziak egitean.

Kutsatzea zeharkako kontaktuaren bidez ere gerta daiteke, gaixoaren arnas jariakinekin kutsatutako esku edo objektuek arnas bideetako mukosekin eta pertsonen konjuntibarekin (begiko mintza) kontaktua izatean.

SARS-CoV-2 hedatzeko arriskua handitu egiten da pertsonen arteko elkarreragina handiagoa izan eta denbora gehiagoz irauten duen bitartean. Era berean, frogatu da transmisio handiagoa dagoela distantzia laburretan (metro bat baino gutxiago), espazio itxi eta jendetsuetan, aireztapen ona ez dagoenean eta prebentzio-neurri egokirik ez dagoenean. Jendearekin eta espazio itxietan, pertsonak denbora-tarte luzeagoak igarotzen dituztenean, distantzia metro batetik gorakoa izatea gomendatzen da.

Ikastetxeetan, COVID - 19ren aurreko prebentzioaren, higienezaren eta osasunaren sustapenaren oinarriko printzipioak honako hauetan egituratzen dira:

- A) Kontaktuak mugatzea.
- B) Prebentzio pertsonaleko neurriak
- C) Garbiketa eta aireztapena
- D) Kasuen kudeaketa
- E) Ikastetxea antolatzeko beste neurri batzuk

Jarraian aipatzen diren neurri guztiak alda daitezke pandemiaren bilakaeraren arabera, eta aurreko ikasturteko protokoloetan jasotako egoeretara itzul daitezke.

#### A.- Kontaktuak mugatzea:

Gorago esan bezala, 2021-2022 ikasturtean erabateko presentzialtasuna bermatuko da euskal hezkuntza-sistema osatzen duten irakaskuntza, maila eta etapa guztietan.

Helduen arteko interakzioetan, 1,5 metroko pertsonen arteko distantzia mantenduko da ikastetxearen barruan, maskara erabiltzea barne, distantzia edozein dela ere.

Era berean, oro har, gutxienez 1,5 metroko pertsonarteko distantzia mantenduko da ikasleen artean, ikastetxean barrera mugitzen direnean edo gelatik kanpo daudenean.

**Ikasgela barruko** taldeen antolamenduari dagokionez, honako hau ezartzen da:

a) **Haur Hezkuntzan**, bai lehen zikloan bai bigarreanean, "burbuila taldeak" ezarriko dira, maskara erabiltzea ez baita derrigorrezkoa. Ikasleek eta tutoreek osatutako burbuila talde horiek ez dira beste talde batzuekin harremanetan jarriko, eta ikastetxean egiten diren jarduera guztietan estankotasuna bermatuko da.

Hezkuntza Bereziko ikastetxeek eta Musika-eskoletako adin-tarte horretako taldeek atal honetan ezarritakoaren pareko jokatu dute.

b) **Lehen Hezkuntzan** maskara erabiltzea derrigorrezkoa da oraindik, baina ikasleek beren talde/ikasgelan (Bizikidetza Talde Egonkorra) elkarreragin eta harremanak izan ahalko dituzte. Ikasgela barruan lan-azpitalde egonkorak sortu ahal izango dira, 4 edo 5 ikasle osatuak, haien distantzia-mugarik gabe, baina azpitalde horiek gutxienez 1,5 metroko distantziari eustea gomendatzen da. Aire zabaleko jolas eta jardueretan, Bizikidetza Talde Egonkor bereko ikasleek jarduera eta jolasetan elkarreragin eta harremanak izan ahalko dituzte.

Beste gela batzuetako taldeekiko distantzia ez da 1,5 metrotik beherakoa izango.

Musika-kontserbatorio profesionaleko eta Musika-eskoletako adin-tarte horretako taldeek puntu honetan ezarritakoaren pareko jokatu dute.

c) DBHko 1. eta 2. mailetan, 3 edo 4 ikasleko taldeak egin ahal izango dira ikasgelan, baina taldekatze horien arteko distantzia 1,5 metrotik gorakoa izan beharko da. Taldekatze horiek egonkorak izango dira gutxienez 10 egun baino gehiagoko

oporraldietara arte, eta, ahal dela, hautazko irakasgai berberak dituzten ikasleek osatuko dituzte.

d) DBHko 3. eta 4. mailetan eta gainerako hezkuntza-etapetan (Batxilergoa, Hizkuntza, Musika, Arte, Kirol eta Lanbide Heziketako ikasketa ofizialak), pertsona eta taldeen arteko gutxienez 1,5 metroko distantzia mantenduko da.

e) Praktika-aldietan edo lantokiko prestakuntza-aldietan, erreferentziako lanbide-eremuari dagozkion neurriak hartuko dira.

## B.- Prebentzio pertsonaleko neurriak

- a. Ikasleei higienari eta portaerari buruzko prebentzio-neurriak gogorarazteko saioak egiten jarraituko da, gela, ikastetxe eta adin bakoitzera egokituta, neurriak lasaitzea saihesteko.
- b. Ez da beharrezkoa izango tenperatura hartzea lanaldiaren hasieran. Norberaren erantzukizunari helduz, **etxean bertan tenperatura hartzea gomendatuko da**, ikastetxera joan aurretik, eta ez dira joango sukarra (>37º) eta COVID-19rekin bateragarriak diren sintomak dituzten ikasleak, irakasleak eta bestelako profesionalak.
- c. Ez dira ikastetxera joango COVID-19 diagnostikoaren bidez isolatuta dauden ikasleak edo irakasleak; ezta etxean berrogeialdian daudenak ere, sintomak dituen edo COVID-19 diagnostikatuta duen pertsona batekin harreman estua izateagatik.
- d. Sarrerak eta irteerak pilatzea saihestuko da, eta, horretarako, antolaketa-neurriak ezarriko dira.
- e. **Maskararen erabilera:**
  - Arau orokor gisa, nahitaez erabili beharko dute ikastetxeko langile eta ikasle guztiek espazio guztietan eta une oro, 6 urtetik beherakoek (Haur Hezkuntza), Hezkuntza Bereziko gela egonkorrek eta Hezkuntza Bereziko ikastetxeek izan ezik.
  - Ikasleen kasuan, maskara higienikoa izango da gutxienez, eta dagokion ziurtagiria eta homologazioa izan beharko ditu.
  - Irakasleen kasuan, maskarak dagokion ziurtagiria eta homologazioa izan beharko ditu, eta dagokion prebentzio-zerbitzuak gomendatutako motakoa izango da; ikastetxe publikoen kasuan, [2020ko irailaren 18ko zirkularrean agertzen da horri buruzko informazioa](#).
  - Halaber, eskola-garraioan erabiltzea gomendatzen zaie 6 urtetik beherako ikasleei. Inola ere ezingo da egin autobusen barruan maskara kentzea dakarren jarduerarik (jan edo edatea).
  - Maskara nahitaez erabili beharko da, nahiz eta ikasleak eserita egon eta 1,5 metroko pertsonen arteko distantzia mantendu.
  - Mugimendua, kantua edo antzekoak eskatzen dituzten irakaskuntza-jardueren kasuan, maskara erabili beharko da eta pertsonen artean dagokion distantzia mantendu beharko da.
  - Ahal den guztietan, ikasleek aire zabaleko espazioetan egingo dute hamaiketakoa, segurtasun-distantziari eutsiz, eta berehala jantziko dute berriro maskara. Salbuespen gisa bakarrik (eguraldia edo espazio-arazoak

- direla eta) ikasgela barruan jango da, eta, horretarako, ahalik eta aireztapen handiena bermatuko da.
- Araudian araututako salbuespenen batengatik maskararik erabili ezin duten 6 urtetik gorako ikasleen kasuan, salbuespen hori medikuaren ziurtagiri ofizialaren bidez edo Osakidetzako dagokion medikuaren ziurtagiriarekin egiaztatu beharko da. Kasu horietan, ikasle horiek ezin izango dira gainerako taldekideekin elkarreraginean aritu, eta prebentzio- eta higiene-neurriak areagotuko dira, eta ez dira aplikatuko aurreko puntuan distantzien eta kontaktu-mugen inguruan deskribatutako erlaxazioak.
  - f. Ikastetxeko espazio komunetan pertsonak elkartzea saihestuko da, pertsonen arteko distantzia eta maskara jantzita mantenduz. Arrisku-eremuak berrikusiko dira, hala nola kafe-makina edo birusa transmititzen lagun dezaketen langileen arteko beste interakzio batzuk.
  - g. Ebaluazio-bilerak eta, oro har, irakasleen bilera guztiak telematikoki egiteko gomendioari eusten zaio, baina aurrez aurre egin ahal izango dira, betiere pertsonen arteko distantzia eta higiene- eta aireztapen-neurriak gordez. Dena den, edukiera- edo aireztapen-arazoak izanez gero (distantzia edo aireztapen desegokia mantentzeko ezintasuna), ikastetxeko beste edozein gunetatik parte-hartze telematikoa sustatu beharko da.
  - h. Guraso Elkarreak ikastetxeetako ohiko gunetan bildu ahal izango dira, bai eta egokitzat jotzen dituzten prestakuntza-jarduerak egin ere, kasu guztietan dagozkion prebentzio- eta higiene-neurriak betez eta dagokion Kontingentzia Plana eginez jarduerak hala eskatzen duenean. Ahal denean, prestakuntza-jarduera horiek telematikoki egitea gomendatzen da.
  - i. Aire zabaleko espazioen erabilera sustatuko da mota guztietako jardueretarako, aisialdikoak nahiz hezkuntzakoak.
  - j. Talde egonkor desberdinetako ikasleak nahastea dakarten parte-hartze masiboko jarduerak saihestuko dira, pertsonen arteko gutxieneko distantzia 1,5 metrokoa izatea ezinezkoa bada.
  - k. Ikastetxeetan egiten den edozein kirol-jarduera ahal den guztietan aire zabalean egingo da, eta erakunde antolatzailea izango da jarduera horren prebentzio-planaren arduraduna.

### C.- Garbiketa eta aireztapena:

**1.** Ikastetxeetako kontingentzia-planetan jasotako **higiene- eta prebentzio-neurri** espezifikoekin jarraituko da, Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuaren eta Osasun Sailaren jarraibideen bidetik. Oro har, honako hauek izango dira:

- a. Garbiketa eta desinfekzioa, gutxienez egunean behin, eta indartu egingo da erabilera-intentsitatearen arabera beharrezkoa den gunetan, adibidez, komunetan. Komunetan, egunean 2-3 aldiz izango da gutxienez, ohiko erabileraren eta erabiltzaile-kopuruaren arabera.



- b. Arreta berezia jarriko zaie erabilera komuneko guneei eta ukipen-gainazal ohikoenei, hala nola ate, mahai, altzari, eskubanda, zoru, telefono, pertxa eta antzeko beste elementu batzuei.
- c. Garbitzeko eta desinfektatzeko neurriak langileen eremu pribatuetara ere zabalduko dira, hala nola atsedenekuetara, aldageletara, armairuetara, komunetara eta sukaldeetara.
- d. Ikasgeletan, nahikoa izango da garbiketa egunean behin egitea, altzariak barne (mahaiak eta bestelako kontaktu-gainazalak, etab.).
- e. Ikasgeletan, jantokian edo beste gune batzuetan txandak ezartzen badira, ikasleak aldatzen direnean, txanden arteko garbiketa, desinfekzioa eta aireztapena egingo da.
- f. Era berean, lanerako partekatzen diren postuak garbitu eta desinfektatu egingo dira txanda-aldaketa bakoitzean eta lanaldia amaitzean, eta arreta berezia jarriko zaie altzariei eta manipulatu daitezkeen beste elementu batzuei, batez ere langile batek baino gehiagok erabiltzen dituztenei. Erabilera partekatuko ordenagailu bat erabiltzean, teklatuaren, saguaren eta pantailaren gainazala desinfektatuko da.
- g. Desinfektatzeko, lixiba diluzioa (1:50) erabiliko da, prestatu berria, edo Osasun Ministerioak baimendutako eta erregistratutako biruzida-jarduera duten desinfektatzaileetako edozein. Produktu horiek erabiltzean, beti errespetatuko dira etiketen jarraibideak, eta saihestu egingo da ikasleek produktu horiek ukitu edo erabiltzea.
- h. Garbiketa eta desinfekzio bakoitzaren ondoren, erabilitako materialak eta babes-ekipoak modu seguruan botako dira, eta gero eskuak garbituko dira.
- i. Paperontziak garbi izatea zaindu behar da, garbi eta bertan jasotako materialak ondo bilduta, ustekabeko kontakturik ez izateko.
- j. Lanbide Heziketan eta Araubide Bereziko Irakaskuntzetan praktikak egiteko erabiltzen diren tailerrak, laborategiak eta beste espazio berezi batzuk garbitzeko eta desinfektatzeko, garbiketaren, desinfekzioaren, intsektuen eta ingurumen-osasuneko beste arlo batzuetako produkzio-sektoreko edo zerbitzuak emateko araudi espezifikoak beteko da, bai eta SARS-COV-2 kutsatzea prebenitzeko ezarritako araudi espezifikoak ere.

**2.** Ikastetxeko **espazioen aireztapenari dagokionez**, aerosolen bidez SARS-CoV-2 transmititzeari buruzko ebidentzia zientifiko berriak beharrezkoa egiten du **aireztapenaren garrantzia nabarmentzea** eta horri lotutako gomendio batzuk indartzea. Ildo horretan, ikastetxeetan aerosolengatik SARS-COV-2 transmisio-arriskua murrizteko gida, [koronabirusari buruzko informazioa atarian](#) argitaratua, erreferentziako dokumentua da.

## D.- Kasuen Kudeaketa.

### 1. Ikastetxeetako kudeaketa.

Ikastetxeen kudeaketa orokorrerako, 2020-2021 ikasturtean pandemiaren kudeaketan metatutako esperientzia da informazio-iturri nagusia. Hala ere, puntu honi dagozkion funtsezko alderdiak gogoraraziko ditugu:

1. Ikastetxe bakoitzean erreferentziako arduradun bat izendatuko da COVID-19rekin lotutako gaietarako. Era berean, ESI bakoitzean erreferentziako pertsona bat izango da dagozkion ikastetxeekin komunikatzeko. Jakinarazpen hori baieztatutako positiboen kasuan baino ez da egingo.
2. Halaber, gomendatzen da etengabeko harremana izatea ikastetxearen eta hezkuntza-administrazioaren artean, Hezkuntzako lurralde-ordezkararen eta Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariaren bidez, **Hezkuntza Saileko Jarraipen Batzorde Nagusiaren** koordinatzaile gisa, egoeren berri emateko, zalantzak argitzeko eta jarduerak koordinatzeko.
3. **Kontaktuak azkar eta errazago arakatu ahal izateko** eta azterketa eta jarduera errazteko, Zaintza- eta Miaketa-sarearekin lankidetzan jardungo da, eta honako informazio hau jasoko da, ESletako erreferenteekin eta Zaintza-sarearekin adostutako formatuan:
  - Bizikidetzat talde egonkor bakoitzeko ikasleen zerrenda.
  - Gela, tailer edo laborategi bakoitzeko ikasleen zerrenda, bertan duten kokalekua edo non esertzen diren (Bigarren Hezkuntzatik aurrera), egiten diren jardueren arriskuaren balorazioa (kontaktu edo hurbiltasun handiagoa duten tailer edo praktiketan parte hartzea), eta haien harremanetarako telefonoak (mugikorra) eta posta elektronikoa, azkar jarduteko, eta kasuren bat agertuz gero harreman estuak lortzea erraztuko duen informazio guztia. Horretarako, ikasleei eta haien familiei buruzko datuak eguneratu behar dira matrikula-aplikazioan (Ikasgunea).
  - Jantoki-txandako ikasleen zerrenda, eta, ahal bada, kokapena eta eserlekuak ezagutzea, beti leku berean egon daitezten saiatuz.
  - Autobus berean garraiatu diren ikasleen zerrenda eta zein lekutan esertzen diren.
  - Eskolaz kanpoko jarduerak antolatzen badira, taldeetan dauden ikasleen zerrenda.

Informazio hori kudeatzeko, eta kasu bat agertzen denean kontaktuak ahalik eta lasterren aztertzeke, ikastetxeko zuzendaritzaren, COVID arduradunaren, autobusen arduradunen eta jantokiko arduradunen arteko koordinazioa behar da, jasotako informazioa datu-base batean izanik.

Halaber, Zaintza eta Arakatzeko Sarearekin lankidetzan jardungo da, kasuen eta kontaktuen familiei informazioa eta jarraitu beharreko jarraibideak emateko, bai eta baheketak egiteko ere, Zaintza eta Arakatzeko Sareak hala egitea eskatuko balu.

**Ikastetxeko langileek uneoro zaindu beharko dute susmagarriak edo baieztatuak diren kasuen nortasunaren eta datuen tratamendu konfidentziala.**

## 2. kasuen kudeaketa

Aurreko puntuan esan bezala, eskarmentua metatu dugun arren, COVID kasu susmagarri edo positiboen aurrean jarraitu beharreko urratsak gogoratzea komeni da:

1. **Ez dute ikastetxera joan behar COVID-19rekin bateragarriak diren sintomak dituzten pertsonak**, izan ikasle, irakasle edo bestelako langileak, ez eta COVID-



19ren diagnostikoagatik isolatuta daudenek edo etxeke berrogeialdian daudenek ere, COVID-19rekin bateragarriak diren sintomak dituen pertsona batekin harreman estua izateagatik.

## 2. Ikastetxean sintomatologia agertuz gero:

IKASTETXEAN COVID-19rekin bateragarria den sintomatologia duten pertsona guztiek aurrez aurreikusitako jarduera-protokolo bat jarraituko dute:

- a. Horretarako berriaz prestatutako isolamendu-gela batera joango dira (maskara jantzita). Gela horrek higiene- eta aireztapen-neurri egokiak izango ditu, eta kasu susmagarri batekin erabiltzen den bakoitzean desinfektatuko da. Halaber, IKASTETXEKO ZUZENDARITZARI abisatuko zaio, eta hark Prebentzio Zerbitzuko arlo medikoari jakinaraziko dio.
- b. Ikaslea bada, lagun egiten dion pertsonak distantzia-neurriak gordeko ditu eta maskara kirurgikoa erabiliko du. Artatzen duen pertsonak FFP2 maskara erabiliko du.
- c. Ikastetxeko zuzendaritza edo COVID arduraduna familiarekin harremanetan jarriko dira, ikaslea etxera eramateko.
- d. Familia bere osasun-zentroarekin harremanetan jarriko da argibideak jarraitzeko.
- e. Hezkuntza Saileko langilea bada, isolatu egingo da (maskara kirurgikoarekin), eta etxera joango da zentroko zuzendaritzari jakinarazi ondoren. Azken hau Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuarekin harremanetan jarriko da berehala.
- f. Beste enpresa bateko edo Administrazio Orokorreko langilea bada, ikastetxeko zuzendaritzari, dagokion Prebentzio Zerbitzuari eta Hezkuntzako Prebentzio Zerbitzuari jakinaraziko die, eta hauen jarraibideak beteko dira.
- g. Eraginpeko pertsona **kasu susmagarritzat** joko da, eta **etxean isolatuta** egon beharko du proba diagnostikoen emaitzak izan arte, Osasun Sailaren [COVID-19ren Zaintza Epidemiologikoko Protokoloan](#) adierazitakoaren arabera.
- h. **Kasuaren emaitza diagnostikoa eskuratu arte, ez da kontaktu estuei buruzko ekintzarik adieraziko, eta irakaskuntza-jarduerak normaltasunez jarraituko du, higiene-neurriak zorrotzuz.** Kasua berresten bada, **kontaktuen azterketa** egingo da hezkuntza-eremuan zein hezkuntza-eremutik kanpo, **kontaktuak ezarrita dagoenaren arabera identifikatuz, sailkatuz eta haien jarraipena eginez.**

### 3. Kasua konfirmatuko balitz:

Kasu positibo gisa detektatutako ikaslearen gurasoek edo legezko tutoreek berehala jakinaraziko diote ikastetxeko zuzendaritzari, erreferentziako ESiarekin harremanetan jar dadin. Azken hau, lurraldeko Osasun Publikoko Zuzendariordetzako erreferentzarekin harremanetan jarriko da beharrezko denean.

Ikasleen artean baieztatutako kasu positiboen **kudeaketa** ikastetxeko **Zuzendaritzak koordinatuko du, COVID arduradunarekin eta dagokion ESiko erreferentziatzko pertsonarekin** batera. Azken horiek, Osasun Publikoarekin koordinatuta, ikastetxeari adieraziko dizkiote **jarraitu beharreko jarraibideak**.

Kasu hauetan, hezkuntza-eremuko eta hezkuntza-eremutik kanpoko **kontaktuen azterketa** egingo da, **kontaktuak identifikatuz, sailkatuz eta haien jarraipena** eginez, EAEko Zaintza eta Arakatzeko Sareak ezarritako prozeduraren arabera.

Ikastetxeek, eta, bereziki, bertako COVID arduradunek, kasu positiboen harreman estuak identifikatzen eta horien jarraipena egiten lagunduko eta parte hartuko dute, une horretan indarrean dauden Osasun Sailak ezarritako irizpideen arabera.

Ikastetxean praktika-modulua (practicum deritzona) egiten ari diren unibertsitate-ikasleen kudeaketa ikastetxeko ikasleen kudeaketaren antzekoa izango da, aurreko paragrafoetan deskribatutakoaren arabera.

Ikastetxean lan egiten duten langileen esposizioaren balorazioa kasu bakoitzaren arriskuaren ebaluazio espezifikoaren arabera egingo da, SARS-COV-2rekiko esposizioaren aurrean Lan Arriskuen Prebentzio-zerbitzuetarako jarduketako prozeduran jasotakoaren arabera.

Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak, Osasun Publikoarekin koordinatuta, balioetsiko du ea irakasleak eta ikastetxeko langileak baieztatutako kasuaren kontaktu estuzat hartu behar ote diren, hartutako prebentzio-neurrien egokitzapenean eta jarraipenean oinarrituta; zerbitzuak langileekiko kontaktu estuen jarraipen aktiboa egingo du.

Osasun-agintariek jarraipen **aktiboa** egingo dute kontaktu estuzat identifikatutako ikasleen artean. Kontakto horiek etxean egon beharko dute berrogeialdian, Osasun Sailaren [COVID-19ren Zaintza Epidemiologikoko Protokoloan](#) ezarritakoaren arabera. Proba diagnostikoak egingo dira, Osasun Publikoko agintariek ezarritako protokoloetan jasotakoaren arabera.

Gurasoei informazio-oharrak prestatuko zaizkie, eta familiei informazio egokia emango zaie **berrogeialdiko, eskuen higieneko eta arnas higieneko neurriak** betetzeko, bai eta COVID-19rekin bateragarriak diren **sintomak garaiz identifikatzeko** zantzuak ere.

Kontaktuak aztertu eta harreman estuzat jotzen direnentzako berrogeialdiko neurriak ezarri ondoren, irakaskuntza-jarduerek normaltasunez jarraituko dute, arreta-neurriak zorrotz eta zaintza pasiboa eginez.

Beste kasuren bat badago ikastetxeko beste gela batean, Zaintza Sarearen jarraibideak beteko dira. Kasuak erlazionatuta egon daitezke edo ez, eta detektatutako kasuen kontaktu estuen azterketaren arabera zehaztuko dira neurriak.

#### 4. Agerraldietan nola jardun:

1. **Agerraldia ikasgela batean:** 3 kasu edo gehiago, elkarren arteko lotura epidemiologikoa duen talde egonkor bakar batean.

Osasun Sailaren/Osakidetzaren zerbitzuek adierazitako kontrol-jarduera espezifikoek jarraituko zaie.

Irakaskuntza-jarduerak normaltasunez jarraituko du prebentzio- eta higiene-neurriak zorrotzuz hezkuntza-etapa guztietan (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH edo Batxilergoa), eragindako taldean izan ezik.

2. **Agerraldia zenbait ikasgelatan, lotura epidemiologikorik gabe:** 3 kasu edo gehiago talde egonkorretan edo talde egonkor gisa antolatu gabeko klaseetan, lotura epidemiologikorik gabe ikasgela bateko eta besteetako kasuen artean.

Osasun Sailaren/Osakidetzaren zerbitzuek adierazitako kontrol-jarduera espezifikoek jarraituko zaie.

Irakaskuntza-jarduerak normaltasunez jarraituko du prebentzio- eta higiene-neurriak zorrotzuz hezkuntza-etapa guztietan (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH edo Batxilergoa), eragindako taldeetan izan ezik.

3. **Agerraldiak zenbait ikasgelatan, elkarrekin lotura epidemiologikoa dutela:** talde egonkor batzuetan edo talde egonkor gisa antolatu gabeko klaseetan kasuak detektatzea, talde batetik bestera nolabaiteko transmisio-maila dutenak, birusa ikastetxean nola sartu den kontuan hartu gabe.

Osasun Sailak/Osakidetzak adierazitako kontrol-jarduera espezifikoek jarraituko zaie.

Irakaskuntza-jarduerak normaltasunez jarraituko du, eta prebentzio- eta higiene-neurriak zorrotzuko dira hezkuntza-etapetan (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH edo Batxilergoa), eragindako taldeetan izan ezik.

4. **Kontrolik gabeko transmisioaren testuinguruko agerraldiak:** baldin eta uste bada kontrolatu gabeko transmisio bat gertatzen ari dela ikastetxean, lurralde jakin batean adin-segmenturako espero zena baino kopuru handiagoarekin, Osasun Sailaren/Osakidetzaren zerbitzuek arriskuaren eta neurrien beharrezko eskalatzearen ebaluazioa egingo dute.



## E.- Ikastetxea antolatzeko beste neurri batzuk

Hartutako esperientziatik abiatuta, prebentzio-neurri orokor batzuk hartu behar dira, aurreko puntuetan finkatutako irizpideetan, osasun-agintaritzak helarazitako edo helaraz ditzakeen irizpideetan eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurriei buruz indarrean dauden dekretuetan ezarritakoetan oinarrituta.

### 1.Eskola-garraioa

["Lan-arriskuen prebentziorako neurriak EAEko ikastetxeetan, COVID-19ren eraginpean egoteko arriskuari aurre egiteko"](#) dokumentuan jasotakoa aplikatuko da.

Era berean, ikasleek eserleku finkoak izango dituzte autobusean; elkarren hurbileko jarleketan eseriko dira talde egonkor batekoak direnak; eta autobus bakoitzean garraiatzen diren haurren zerrenda izan beharko da, bertan betetzen duten lekua zehaztuz.

6 urtetik gorako ikasle guztiek eta gainerako langileek maskara erabiliko dute uneoro. 6 urtetik beherako ikasleentzat ez da derrigorrezkoa maskara erabiltzea, baina, ahal denean, adin horretatik behera ere erabiltzea gomendatzen da.

### 2.Eskolako jantokia

Jantoki zerbitzuan, "Lan-arriskuen prebentziorako neurriak EAEko ikastetxeetan, COVID-19ren eraginpean egoteko arriskuari aurre egiteko" dokumentuan ezarritako neurriak errespetatuko dira, bai eta berriazko beste dokumentu honetakoak ere: [Eskola-jantokietan Covid-19ri aurre egiteko aplikatu beharreko prebentzio-neurriak](#).

### 3.Eskolaz kanpoko jarduerak

Eskolaz kanpoko jarduerak egin ahal izango dira baldin eta ezarritako protokoloak betetzen badira eta Kontingentzia Planean sartuta badaude –bai ikastetxearenean, bai antolatzen duen erakundearenean-, eta hezkuntza-etapa bakoitzerako ezarritako prebentzio-neurriak errespetatzen badira distantziari, higienerari, aireztapenari eta maskararen erabilerari dagokienez.

Ikasleek gaua igarotzea eskatzen duten eskolaz kanpoko jarduerari eta jarduera osagarriari dagokienez, establezimendu bakoitzak eskatzen duen protokoloa beteko da.

Ikastetxeetako eragina aztertzen jarraituko da eta eskolaz kanpoko jarduerari buruzko neurri berriak hartuko dira. LABIk proposatutako edozein neurrik lehentasuna izango du puntu honetan ezarritakoaren aurretik.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko ekainaren 10a  
HEZKUNTZA SAILA